

15. ¡Ardi gaisoa! Azerikumai bularra emon bear izango dautsek.
16. Tšakurren zaunkatzat entzunak izango dira gure esakeraak.
17. Eliza askotatik atarako daue, Iaungoikoan kontrakoa bailitzan, Iaungoikoak gizonai emondako euskera garbi, erru-bagea.
18. Guraso zaarrai suin-erran lotsa galdukoak legez, erbesteko berbetaak ikastetšeetako atea itšiko dautsez gureari; ta tšakurren aurretik basakatua ibiltan dan antzera, basorik baso ibiliko da euskerea.
19. Eztau inok esan al izango beren Errian bizi danik.
20. Ikastetšeetan bizi nai izango dau ta irri egingo dautse erdaldunak, irri euskaldunak eurak, irri euskaldunen Aita-ordeak.
21. Gurasoak: asizuez maiterik zeuen semeak.
22. ¿Zetarako? Urrunetara eroanda alperreria ta dongakeria ikasi daien, da onantzean ezäutu eztaizuezan, da ezautu etzaiezan.
23. Erein gogoz artoa ta garia; sartu arduřaz lurrean zugatz-landara emokorrak.
24. ¿Zetarako? Erbesteko patariak etorri ta irun-tsi daizuezan.
25. Gorde ondo, ta Elizako ke zuriz usainduizuez zeuen asabakandiko oitura ta izkune maitagarriak.
26. ¿Zetarako? Erdalerritarrak euren gogo iluna zeuen ekanduak ilten argitu daien.
27. Pilotu pilotu, basoartean izerdian izerdiz eginiko ondasunak; eta zeuen etšaguntzakaz batera eroan eizuez ibai-ondoetara uriak egiteko.
28. ¿Zetarako? Euretatik arrotzak erbesteko basamortuetara bultzaka bultzaka bota zaiezan, edo zeuen odol len garbia moroenaz nasta daizuen.
29. Gazteak: larogei urteko bizitza-goienera eldu dan aguratšu onek, igaroriko zelaian dakusazan atseginak baino atsakaba geiago dakusaz etorkizunekoan.
30. Euskalerrriak, tšakur emeak legez, enda askotako umeak egingo dauz.
31. Legeak, erbestea ondatuta gero, Erri au ondatutera ekarririkoak izango dira.
32. Euskereak, bularretik dagoan emakuma erkin, zurbil, makar, gaisoki, mengel, laru, makal, argal argal bat irudi izango dau.
33. Laztantšu: ator ona, aingerutšu ori. Begiratu zerura.
34. Iaungoikoak, mendebalari putz eraginda, ekatš ondagarriren bat bialduten dauskunean, artu egin bear izaten dogu, atzera ezin bota izaten dalako.
35. Zerutiko naibage ta atsakabai arpegi ezin emon leioe; biotza emon bear iake, bertan barruan naikari ta atsegin biurtu daitezcan.
36. Baia zerutikoak ezarren, lurrean erneriko zorigatšak ostikopetu leikez.
37. Atzo erakutsi neuazan mendi orrek, eta Aizkorri, ta Oiz, da Urbasa, ta beste geure geure orrek,

laztantšu neurea, etšeko tšaltšua baizen maite izan eizak.

38. Euskaldunak. ¿Eta zuek alkar makilatu ta gorrotau ta il?

39. Bide batetik etorriak zaree, eguzki-bidetik; eta seiaska edo kuma baten asiak.

40. Odol bat daukazue, berbeta bat, Erri bat, Ama bat. Bera maite badozue, alkar maite izan eizue.

41. Zuen arerioa izango dana, mendi orren atzean bizi da.

42. Banoa ni neure gurasoen azurrakaz neureak bat egitera.

43. Zuen azurrak lurperatu daitezanean, eztaitezala gureak euren igeska asi. Agur.»

Berba onek entzueran, lenengotan irri-barrezka batzuk egonarren, geienak begi bustiakaz ikusi eben Peru igarlea, Antontšu ta Mariagaz urrunduten.

## ESAKUNEAK

Buruko andia ta iate urria.

Gran tocado y menguado comer.

Grande toilette et maigre diner.

*Burukoa*-gaitik, daukenak bere, gaur *tokea* edo *moñua* sarriago esaten dabe.

\* \* \*

Zagokez isilik ta entzun eztaizu geiztorik.

Callando estareis y mal no oireis.

Gardez votre langue et vos oreilles ne seront point blessées.

Gaur *zagokez*-ek daukan *ke* ori, Lapurdi-aldean oituten da, baina gure artean ez. Bakar bakarrik al izatea adierazoteko noizik noizera oituten da. *Zagokez* da *egon al zara*, *egon zaiketz*, *al zagoz*, *egon zaitekez* bardinak dira.

*Geizto* edo *gaizto* irakurten da liburu onetan beti *tsar*-en ordez.

Gaur entzuten eztirean aditz (verbo) batzuk daukaz liburu onek. *Il aie*, te matarán. *Il daie*, lo matarán.

Esakune au ta arako *aotik urtenak*, *aoan sartu*, antzekoak dira.

\* \* \*

Kantari geiztoak oinon.

El mal cantor porfia.

Le mauvais chanteur n'a jamais fini de chanter.

Gaur bere, asko ezarren, esaten dira *oñon* edo *oinon*, ta *oinotea*. Bilbo-ondoan entzuten da. Añibarrok *Lora-sortan* dakar.

\* \* \*

Zelan baista oiala, alakoa mendela.

Cual es el paño, tal es el orillo.

Tel est le drap, telle est la lisière.

*Baista* zer dan eztakigu. *Zelanbaist* edo *zelanbaista* esaten dabe batzuk *zelanbait* esateko; *zelanbaistekoa* ta *zelanbaistean*, *zelanbaitakoa* ta *zelanbait*-en ordez.

\* \* \*

Zitel zirola, nok gudura aroa?  
 Pusilánime zapatero, quién te lleva á la guerra?  
 Poltron de savetier, qui te mène à la guerre?

Gaur ezta esaten *zirola* zapatari edo oskinagaitik. Oskina bere gitši. Bizkaian ezta oituten. *Zitel* bere ezta oituten, guk dakigula. *Zital* esaten da *pirriagaitik*: erderaz *terko*.

*Gudu*-n ordez *guda* irakurten da oraintsuko liburuetan.

\* \* \*

Zaarrago, ikaskurago.  
 Cuanto más viejo, más deseoso de saber.  
 Plus vieux on est, plus on a l'envie de savoir.

\* \* \*

Zematuok ogien iala.  
 Los amenazados, comedores de pan.  
 Mis en péril mangeurs de pain.

Geroago ta gitšiago oituten dira *zematu*, amenazar; *zemaiz*, amenaza.

\* \* \*

Aita zaarra ta betse etena, ezta gerena.  
 Padre viejo y abarca rota, no es deshonra.  
 Père vieux et sandale usée n'est pas une honte.

*Behse* dino lengo moldaldian, da eztakigu ziur, ala *bese*, ala *betse*, dan. Gaur *abarka* esaten da. Guk dakigula, *gerena* ezta gaur esaten; baina berba zaarrak maite izaten doguzanezkero, eztogu au bere lurperatuko.

\* \* \*

Arloteari emaiok arrautza, eskatuko dik zotza.

Al mendigo dale el huevo, pedir te ha el palillo escarbador.

Au mendiant, donne-lui l'œuf, il te demandera le cure-dents.

Esakune au eztago bizkaitarrez eginda: *emaiok*-en ordez *emoiok* esaten da Bizkaian; *dik*-en ordez *deusk* edo *dausk*.

Aginetarako zotzari norbaitek *agin-ziria* esaten dautsa, ta egokia dirudi berba onek.

\* \* \*

Agura onari ez atepak itši.  
 Al buen viejo no cierras puertas.  
 Au bon vieillard ne ferme pas ta porte.  
 Agura bonari dino lengo moldaldian.

## VASCOFILLOK EUSKALZALERI

Lariz, 1897ko Zezeilaren 8an.

Gauza batzuetan (zeuk esango zendukiena) zuritu nozu. *K* ta *ge-gi* (gue-gui-n ordez) ta *is* aurrerantzian neuk be oituko ditut. Nire *k* onek neure eskuetatik urteten daben legez urtengo baleukie albistarijan, barre egingo leukie, ta ez gitši, irakurliak. Batez bere *is*-gaitik esan dozunari eritši dausat, orain arteko guztari baño obia. Aita euskalduna eztanian eta semia

bez ¿Aita-semiak zelan izan leikez euskaldunak? C euskerazkua izan ez, eta *h* be izan ezik ¿*ch* zelan izango da?

Baña beste gauza batzuk dagoz, len baizen *balte* naukenak: *baino*, *ilebete*, *gurea*... Ni onen ganian zuritu baño lenago edurrez zurituko da itšasua bera.

Bildur bat daukat: irakurliak azpeltu ez dagiguzan bildurra. Ta onegaitik beste gauza bat esango dot.

Azkanengo gei edo lumero bijetan ikusi ditut aitu-ten ez ditudan berba batzuk; beste batzuk ondo ondo ez dakidazanak.

Ona emen: *Biltoki*, *bitezar*, *iragarri*, *isiro*, *ozkirritua*, *irrikittua*, *berbaroa*, *ispitsu*, *dzapartada* edo *iiuti*, *sai*, *destaina*, *destainari*, *mukerra*. *ordaindu*, *burustu*, *sotil*, *aupada*, *errimeá*, *mukerra*. ¿*Gozotegia* ta confiterija bat izango dira? *Zuritu* polita da *convencer* adierazoteko: banekian, baina eneban gomuta. *Iaunartu* edo *Jaunartu* eztago tšarto esanda. ¿Zer dira *su-burdija* ta *tsimizta-argija* ta *tsimizta-burdija* ta *izurri sornatsua*? Orrek, eztiñot tšarto dagozala, baña zeuk asmauak dira.

Beste gauza bat. Lengo baten adiskide batzuk batu giñian, eta *Euskalzale*-n ganian zer edo zer esanda gero, gutariko batek egi eban auše itauniau. ¿Zelan euskeraz onduen esan leikezan arako Job santuak esaniko berba ederrak: *Miseremini mei*, *miseremini mei*, *saltem vos amici mei*. Batak ziñuan modu batera, ta bestiak bestera. Zeure eritšija jakiñ nai genduke.

Ondo baderitšazu, onakoše bat egingo neuke noizian bein: berba barrijak edo gitši jakiñak itandu.

Aurrera beti, mesede asko egin leike-ta.  
 Zuria... etc.

VASCOFILLO.

## IZKIRIMIRIAK

Aita-semé batzuk *erloju* zar bat *konpontzen* ari zira-la sartu zan auzoko atso bat aien etšean.

Gizonen lanari pizka baten begira geldituta, esaten du atsoak:—¿Zertan ari zerate?—Ikusten dezu, erlojua konpontzen.—¿Erlojua konpontzen? ¿Ori ere badakizute?—¿Jakin ez, Maintonj? dio etšeko andreak; oiek oso *astruziosuak* dituzu; naikoa dira oiek biok Jaungoiko berri bat asmatzeko ere.

D. Ak.

Mutil oker bik, solo-arte baten zear ioazala, aguratsō bat ikusi euen lanean; da lotsea beste baterako itšita «Erein erein, agurea, esan eutsan batek, elduta dagoanean geutzat izango da-ta»

—Izan leiteke, tšotšo. Garagarra ereiten diardut-eta.

A. Ek.